

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

63

2023ko martxoaren 31, ostirala

3

TOKI ADMINISTRAZIOA

HERNANIKO UDALA

Iragarkia

Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 28an, Hernaniko Udalaren aurrekontu orokorra aldatzeko espedienteari hasierako onarpena eman dio: Udalaren Kreditu gehigarriak bidezko 2023-KALD-3 espedientea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua*: Kontu-hartzailetzan.
- b) *Aurrekontua aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea*: hamabost lanegun.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak*: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Aurkaratzeko arrazoiak*: Aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa*: Udal sarrera erregistroan.
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa*: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epean inolako erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, aurrekontu aldaketa behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Hernani, 2023ko martxoaren 28a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (2355)